

## **GURE INGURU NATURALAREN DEFENTSAN MANIFESTUA: BELARTZA 2 GELDITU**

2009an Donostiako Udalak eta sustatzaile pribatu batzuek Belartza-2 industrigunea ordenatzea adostu zuten. Belartza-2 makroproiektua, 20 ha-tik gorako industrigunea (Anoeta estadioa halako 40) natur balio handiko inguruan, ezkutuan eta herritarron bizkarrera onartu zuten, inolako gizarte eragilek natura babesteko inongo ekimenik abiatzea saihestuz.

Azkenengo asteotan salaturiko obra ilegalak direla medio ( Belartza - harrobitik ateratako harriekin egindako 150.000m<sup>3</sup> ko betelan irregularra) eta proiektua berrartzeko dagoen interesa behin egiaztatuta, manifestu honen sinatzaileok kalteturiko gunearen urgentziazko balorazio egin dugu eta balio natural esanguratsua aurkitu dugu bertan, tartean babestutako habitatak (haltzedia, hariztiak, belazeak...) eta mehatxupear dauden beste zenbait fauna espezie, hala Miru gorria (galzorian dagoen espeziea) edota Belatz handia (arraroa). Aipatutakoez gain, ferra saguzar mediterraneoak (galzorian) Belartza-2 proiektatuta dagoen inguruak elikatzeko erabiltzen dituela esaten duten aipamen historikoak daude. Bioaniztasunaren ikuspegitik ingurune honen garrantzia oso handia da eta hala jaso zen loteslea den 2010eko ekaineko "Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko (HAPO) Ingurumen Garapenerako Txostenean". Honegatik guztiagatik, manifestua sinatzen dugun elkarteok makro proiektu honek dakarren kaltea salatzen dugu eta ozen diogu Belartza-2 industrigunea eraikiko balitz balio natural, paisajistiko eta agrológico handiko eremua suntsituko litzatekeela. Honek basa espezie askok bizitzeko beharrezko duten habitat eremu berezia neurrigabe murriztea ekarriko luke. Era berean beste natur ingurune bat suntsituta animalia askoren bizitokien zatiketa ekarriko luke, zeinak egunetik egunera ingurune naturalaren urbanizazioa dela eta, geroz eta isolatuago dauden. Ildo berean, nahiz eta bioaniztasun indize handiko eremua izan, etengabeko atzeranzko joeran den landazabala izango litzateke ekosistema kaltetuena. Honenbestez Belartza-2ren gauzapena, aipatu dugun Jasangarritasun txostenari ez ikusiarena egiten ez dion proiektua izateaz gain, estatuko Bioaniztasun Legearen edota EAE-ko Natura Kontserbatzeko Legearen eta Europako Habitaten Direktibaren urraketa larria izango litzateke.

Zonalde hau mugakide duen Unanue babestutako Gune Naturalean txertatu beharko litzatekeela defendatzen dugu eta horrela babestutako korridore ekologiko lokalen sarean sartuz Belartza- 2 makroproiektuak zuzeneko eremuan eraginak kontuan ez hartzeaz gain, inguruko guneetan zeharka sortuko dituenak ere nahita ez ditu aipatzen, zehazki Donostiar guztion natur ondare den babestutako Landa Parkean. Badirudi, berriro ere, batzuen interes partikularrak interes orokorrari gailentzen zaizkiola. Enpresa handiek baliabide natural eta paisajistikoak espoliatzen dituzte atzera bueltarik gabe suntsituz eta hau dena, administrazio publikoaren laguntzarekin.

Eraikuntzaren negozio sostengaezinak amaitu egin behar du. Donostian hazkuntza iragarpen irrealen eta interes espekulatiboen arabera suntsitutako eremu natural ugari dago. Egun eremu horietako gehienak hutsik, azpi erabilia edota argitu gabeko etorkizunarekin aurkitzen dira, baina, eremu hauek urbanizatzeko egindako hondamendi naturalak ez du atzera bueltarik. Hala, ekosistema biziak zirenak hormigoizko desertu dira egun eta adibide garbienak Belartzatik 2-3 kilometrotara, Añorgan bertan luxuzko etxebizitzak egiteko suntsitutako eta hutsik dagoen Atotxa Erreka mendi ingurua eta Zubietan Eskusaitzeta, oraindik enpresa bat bera ere finkatu ez den Gipuzkoako industrigune handiena.

**Honenbestez, manifestu honen elkarte sinatzaileok hurrengoa salatzen dugu:**

- Belartza-2 eraikitzeak balio natural, paisajistiko eta nekazal handi eta potentzial handiagoko eremu bat suntsitzea ekarriko luke. Belartza-2 eraikitzeak kalkulazinezko balioa duen korridore ekologikoen txikizioa ere ekarriko luke.
- Belartza-2 eraikitzeak indarrean dauden erakunde desberdinen arauak urratzea ekarriko luke.
- Proiektu hau onartzerako garaian interes partikularrak lehenetsi ziren interes orokorren aurrean eta ez ziren ingurugiro irizpideak kontuan izan. Horren adierazle da ekosistema desberdinetan eragingo zuen kaltea ebaluatu ez izana, tartean korridore ekologikoa.
- Unanue Natur Gunea, Aisialdiko Landa Parkea dena eta zeinaren babes urbanistikoa beronen balio natural eta paisajistikoak babestean oinarritzen den, larriki eta atzera bueltarik gabe kaltetua eta mehatxatuta legoke Belartza 2 industrigunea eraikiz gero.
- Donostian industrigune berri bat eraikitzea zentzugabekeria hutsa da, eta are gehiago hirian zaharberritu daitezkeen industrigune erdi hutsak edukita. Era berean, donostiako lurretan aurkitzen da Gipuzkoako industria poligono handiena izendatu duten Eskusaitzeta, zeinaren urbanizaziorako 70 ha natural suntsitu zituzten eta oraindik ere enpresa bakar bat bertaratu ez dena.

**Aipatutako guztiagatik, donostiako hiritar eta talde ekologistetako kide moduan hurrengoa exijitzen dugu:**

- Belartza 2 poligonoa ez eraikitzea eta naturaren defentsan gune berezi hau babesteko beharrezko diren neurriak hartzeko prozesu administratiboak martxan jar daitezela.
- Era objektiboan adierazitako balio naturalak kontuan hartuta, ingurune hau, korridore ekologikoen parte bezala, mugakide duen Unanue Natur Gunean txertatzea.

Amaitzeko donostiako alkate jaun Eneko Goia Lasori eskatzen diogu manifestua sinatzen duten talde ekologistekin elkartzea.

**BELARTZA-2 GELDITU, NATURA BABESTU!**

**NATURKON (Gipuzkoako talde naturzaleak) :**

EGUZKI - HARITZALDE NATURZALEEN ELKARTEA - EKOLOGISTAK MARTXAN - ITSAS ENARA OE - UGATZA OE-  
ARKAMURKA NT – HERRIO NT – MUTRIKUKO NT – LANDARLAN NT - ZUMAIAKO NT – ONDARROA 12 MILIA -  
ERKAXO NT –KATAMARRUA NT

**SEO BIRDLIFE**